

Gasteizko institutu bateko DBHko ikasleen guraso talde bat gara eta idazten dizuegu gure kezka zuekin partekatzeko.

Iaz, ikastetxeak erabaki zuen DBHko 1. mailako ikasleak hasiko zirela Chromebookarekin lan egiten, eta ordenagailua erosi behar izan genuen.

Aurten, *Digitalizaziorako Europako Funtza* dela eta, Eusko Jaurlaritzak gailu baten mailegua eskaintzen du ikasle bakoitzeko, DBHn Chromebookak eta Batxilergoan Windows sistema eragilearekin. Guk ez dugu beste ordenagailu bat izan nahi, iazkoarekin soberan dugulako. Mailegukoa hartzen badugu, etxean gordetzeko izango litzateke.

Bestalde, argitu digute maileguaren kontratua atzera botatzeak berekin dakarrela Eusko Jaurlaritzatik beste dispositibo bat lortzeko aukerarik ez izatea **hurrengo 4 urteetan**, ikasleak ikastetxe berean jarraitzen duen bitartean. Horrek suposatzen du Batxilergoan, behintzat 1. mailan, ez dugula aukerarik izango banatuko dituzten ordenagailuak (Windows) izateko.

Orduan, atera daitekeen ondorioa honako hau da:

Hartu ordenagailua behar ez duzunean, behar izango duzunean ez duzulako aukerarik izango. Jarrera hori zentzugabea iruditzen zaigu eta ez dator bat izan beharko genukeen kontsumo arduratsuekin. Xahutzearen kulturaren adierazlea da. Eta, gainera, hori ez da oso eredu hezitzailea gure seme-alabentzat.

Gailu pila bat erosi dira, eta badakigu zer dakarren horiek ekoizteak, erabiltzeak eta deuseztatzeak: energia eta agortzen ari diren elementuak eta materialak kontsumitzea.

Gure kezka ulertuko duzuelakoan, har ezazue agur bero bat.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 30a